

# Eztabaidatu ez direnak

RAMON LABAIEN



**AZKEN** egunetan Madrilén izan dugu Frantziako Presidenta den Chirac Jauna, bere Juppe Lehen Ministroa Parisen utziz, dituen korapilo pribatu eta publikoekin erdi itorik. Ez dirudi Madrilén eztabaidatu omen diren gaiak, horrelako bidaia ponposo batenaz arrazoi nahiko direnik. Frantzia-Katalunia Trembide Ultra Bizkorra aurera doala esan zaigunean, zaharrak berri bihurtu nahi izan zaizkigu. Europa osoan, lanpostu berrien bultzazko jakinarazi dituzten intenziak, txalagarri badira ere, benetan Europako Kontseiluari dagokion zerbitu da, eta ez Chirac-Gonzalez bikoteari. Azkenik, azalduaz, bi Estatuak, Terrorismoaren aurka dituzten hartu-emanak, sendotu egin dituztela, besteak beste, Polizi-Komisaria berriak, ahantziak genituen mugetan, berriro kokatuz. Eta besterik ez, eta hau izan bada Agenda osoa, benetan partaideak ez ziren nekaturko.

Argi utzi dena, bestetik, gure gizon handi horiek zer gai ez dituzten eztabaidatu izan da. Mururoko eztanda nuklearrarena bai, Gonzalez Jaunak zioenez, hori bai. Europari dagokion zerbitu delako. Eta bestea, GALen tena pozoisua, arrazoirik eman gabe, huntan, gauzak zergaitik ez diren ikusi. Edozeinek pentsa lezake, Chirac Jaunak izan zuela interes berezi bai, 'X' Jaun famatu hori ezagutzeko, besteak beste, kolkotik hartu eta astindu batekin, hankaz gora jartzeko, ikusi zela GALen gaiztakeria gehienak, Frantziako Estatuon egin zirela eta zenbait kasutan odol frantsesa ixuriz.

Horrela ba, eztabaidatu direnak kementu guztikoak, ikutu ez direnak benetan garrantzitsuak, penisatu behar, zerbitu dela oker eskema osoan. Frantziako estatu gizonak ez direlako, besterik gabe, ibiltzen etxetik kanpo, arrazoi pisudunik ez badute. *Veni, Vidi, Vici* zioen aspaldi norbait. Etorri, ikusi, irabazi. Nahi nuke jakin, zertara etorri zen Chirac Presidenta, zer ikusi duen eta zer irabazi.

# Binyamin oinez

TXILLARDEGI



**ORAIN** 823 urte itzuli zen Tuterara bertako seme-rik famatuena: Binyamin bar Jonah. XII. mendean betean zappi urez munduan barrena ibili ondoren, bere Nafarroara bihurtu zen; eta bisitatutako herrialdeen berri, izkiriuz utzi. 1172 urtean zen; Nafarroan, eta Donostian bereziki, Antso Jakifina erreege zegoelarik.

Tuterako judutar multzoko seme zen Binyamin hura. Eta hebraieraz mintzo zen, besteak beste. Oso sinestuna izanik, munduko judutarrak zertan ziren, eta nola bizirik ziren, ikertzeraz joan zen. Mesiairen etorrera noraino espero zuten jakin behar zuen, eta gauzak *de visu* ikastera joan zen.

Nabukodonosor-en jauregiaren hondakinak ikusi zituen, *ayurrez*: (arriluz, euskaraz) aspaldian eraikitako Babel-dorreetaren arrastoak ere bai; eta Jerusalem eta Baghdad ikuskatu.

Eta Tuterara itzuli zen. Mundu guztiko judutar komunak bertatik bertara ezagutu ondoren, etorkizunerako bere lekukotasun paregabea hebraieraz izkiritatuz, Nafarroara berriro. Binyamin tuterarrak utzi zigun liburua, niri 'Txepetx-en' bidaia gogoratutik dit. Txepetxek ere, 1970ean, Nafarroako euskaldun guzueen bisitaldi sistematikoa egin baitzuen; horri esker gaur nafaritar euskaldunak orain dela 25 urte zertan ziren zehazki baitakigu. Baina cartagenatar euskaltzale ospetsuak, garai hartan euskaldun-berri gordintxo oraindik, gaztelaniaz egin zigun bere inkesta-bidaieren kontua.

Aurtengo 'Nafarroa oinez' hau, horretara, halako 'ordain' isila ere bada. Igandean honetan Euskal Herri guzitik joango baikara Tuterara; euskaldunok, hemengoak eta hangoak, zertan garen, eta zer nahi dugun, ozenki aldarrikatzen. Eta euskaraz.

Binyamin tuterarrak ez gintuzke gaitzetsiko.

# HEMEROTEKA

## Noticias

### Gerrikoa

Enrique Rodriguez Galindo jeneralaren gerrikoa Intxaurrondoko kuarteleko Pilarko Ama Birjinaren gerriaren bueltan jarri duten notizia ekarri diugu Guardia Zibilarren jaiki. Beinke; ez dakit zer esango duten aragoiarrek, edo Pilarko Ama Birjina hori eta Zaragozan tronuan ezarrita dagoena desberdinak diren. Edozein mo-



...eta Olano agertzen bada?

OROZ / DIARIO DE NAVARRA

dutan, oso egintza polita da, eta gizasemeari dagokiona, 'dama bat gerriko militar heroiko baten biltzea. Horrela segurituago sentituko da, neska bat kalera bakarrik ezin ateratu den garri hauetan. Pilarko Ama Birjina oinez egiteko gauza balitz,

seguru nago jeneralak kanpainako kapotea jarriko liokeela oinetan txarolezko zapatak ez zikintzeko. Ama Birjina hitz egiteko gauza balitz, oster, ez dakigu zer esango luketen. Txarrenean, ahoa bete hortz utziko luke, hain urrun joateagatik.

Ama Birjinaren gerrikoak amaitutzat jotzen du egunetan entzun diren arrunkeria guztien debatea. Hemen debate politikoak beti amaitzen dira ermitara egindako erromerian, edo kuartelera.

MANUEL BEAR

### Denen gaindik askatasuna

Irakurri det... *la doctrina Aguirre anclada en el autonomismo y europeismo*... Nik behin baino gehiagotan entzun eta irakurri nion Joxe Antonioren ta bere amets eta helburua zuan Euskal Herriaren burujabetasuna, askatasuna ta bere atzetik eraman zituen nahi ta aspirazio guzikiak, benetan bere herria matite bai zuan herri denan gaindik.

Guda denboran Madrilék eman zigunean estatutua, momentuan konforme zuan berarekin, baina autonomi harek ez zuan asetzen, bere herriaren askatasuna bai zuan bere helburu bakarra beraren alde ahalegin guzikiak eginaz.

Horregatik bere doktrina ez zuan autonomia, Euskadiren askatasuna baizik. Baiza ere komeni zanean burukalariazan.

1945eko maiatzaren erdialdean, ehun bat gazte Paris inguruan ejerzito norteamerikano-ko ofizialekin gudarako geratzen ari ginararik, bere bisita eduki genduan eta bera erdian zelarik gela haundi batean guziki bera inguratutik, hitz egin zigun eta esan... zuek ikasi asko Euskal Herriak zuen beharra bai dauka, ta jarraitu zuan esanez... guk kanpokoan laguntzarik ez degu espero/beharrak Frankoren diktadura hankaz behera botatzeko, geronek bakarrik bota behar degu...

Hori entzutean eta harriturik (zergatik guk esperantza guzikiak jarriak bai ginduzan amaitzen zegoan gudu hura bukatzen zanean eta Hitler eta Mussolini oinaratu, berak jarria zuten Frankoren gobernuak kenduko zutela, bere lekuan errepublikari agipidetza emanaz,) nik esan nion Joxe Anto-

# ZUZENDARIARI

niori... guk makila ta pistolekin frankotarran ametrailadora ta kanoinen aurka eginaz frankotarrak botatzeko esperantza badaukazu, arreglatuta gaude...

Europeista bai, esateko abertzale guziki geraden bezela, baina gu herri bat garelarik eta ez autonomiarekin garrantziko eskubide gaberik, Madriléko morroiak izanik.

IÑAKI ISASMENDI Hendaia (Lapurdi)

### Nafarroa ezagutu... oinez

Zenbat aldiz hitzegin dugu Nafarroari buruz? Zenbat bertan gertatzen diren gorra-behera politikoez? Egia da ordea (eta hau nire lagun nafar batek askotan gatzigatu dit) ez gipuzkoarrek, ezta arabar edota bizkaitarrek ere, ez dugula Nafarroa ezagutzen, ez geografikoki ezta sozio-kulturaliki ere.

Nafarroari buruz dugun iritzia guztiz murrizta, zaharkitua eta estereotipatua da. Nafarroari buruz hitz egitekoan erlojuaz mende honen seigarren-zazpigarren hamarkadan gelditu zaigula ematen du. Hala ere Nafarroa aldatzen ari da eta jadanik oraino Nafarroa ez da duela 20-30 urtekoa. Poliki-poliki, baina etengabe, aldaketak gauzatzen ari dira. Nafarroaren artean eta, besteak beste, horren lekuko euskararen hedapena dugu. Oraindik hunkituta gorroztzen dugu duela urte batzuk Tafallan ospatu genuen Nafarroa Oinez hura, eta Lizarrakoa, eta Bizarra; beti sentsazio bera: «Euskararen mugak hausten ari gara», «euskarara aurera doa», «euskarara Ebroaraino». Gaur egun ordea, zailena zirudiena lortuta dago: Tuteran Erriberako hiriburuan duela 10 urte

abiatu zen Argia Ikastola Errealitate da. Euskararen irakaskuntza jadanik Hegoalde osoan hedatuta dago. Zailtasun handiz, baina ahalegin eta lan handiagoz ametsa besterik ez zen proiektu hura egia bihurtu da. Gaur egun Tuterako ikastolan 119 ikasle dago eta lehendabiziko promozioak aurretik bertan bukatu ditu OHOk ikasketak. Guzti hau ordea ez da miraria izan. Argia Ikastola ez da Jainkoak sortua, Guzti hau guraso, irakasle, ikasle eta eragile sozialaren lanari esker lortu da. Bai, Argia Ikastola-soziala da; hau da, eragile sozialek sortuta. Ez da sortu instituzio, funtzionario, alderdi politiko edota jauntxo batek nahi izan zuelako. Ez. Sortu da behetik gora, Euskal Herriaren gauza asko eta asko sortzen diren bezalaxe: Tuteran herriko guraso eta euskaltzale batzuek sortzea erabaki zutelako.

Emaitza begi-bistan dago. Gaur egun Tuteran euskaraz entzun daiteke. Beharbada bere presentzia soziala ez da oso nabarmena (honetarako gizaaldi batzuk joan eta beste batzuk etorri beharko baitira), baina dudarik gabe Tuteran euskaraz hitz egiten da eta etorkizun euskalduna ziurtatuko duten oinamariak ezarriak daude.

Tuteran, baina, gure laguntza behar dute: bertara agertzea, gure laguntza ekonomiko, gure animoak eta (gauza guztien gainetik) gure portaera ereduak. Eredugarria jarraera personal orokorrean, baina batez ere ereduargarria euskararen erabilerrari dagokionez. Dirua eta bestelako gauzak garrantzitsuak badira ere, askoz ere garrantzitsuagoa da euskararen komunikazio tresna dela erakustea. Beraz, Euskal Herriaren euskaraz egin eta Tuteran izan baino ezagunago.

JOSE IGNACIO LOPEZ DE LUZURIAGA Donostia

# GAIA JARRITA



## Nafarroa Oinez

Ley del Vascuencek nahiz ukatu behar luketen babesa, Tuteratik sasoi betean dator euskaldun ametsa. Eta jakinik politikoen tratu ez dela erreza, Nafarroa Oinezek argiak duen zulo beltza argi beza.

LONTXO ABURUA

# Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X

**oj** OJOK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URKA
Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI
Gereilea: FERNANDO FORUNDARENA
Publizistak: MARI JOSE SARASA

### HELBIDEAK

**Egiltza nagusia:** Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain  
 \* 300 222 / Erredakzioko faxa: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707  
**Arabak:** San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz / \* 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
 \* Publizitate: 13 19 65  
**Nafarroa:** Iratze Monastegia, 45-13. esk. / (Iritziz dorrea) / 31011 Iruñea  
 \* 410 40 46 / Faxa: 410 37 15 / \* Publizitate Orokorra: 410 38 55  
 Publizitate Lokala: 410 38 46  
**Bizkaiak:** Zaharburu Eparantzeta, 2-1. Lehera. / 48003 Bilbo  
 \* 410 40 46 / Faxa: 410 37 15 / \* Publizitate Orokorra: 410 38 55  
 Publizitate Lokala: 410 38 46  
**Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa:** Pannecan 14. / 503 Posta  
 kutsaila. / 64100 Baiona. / \* 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11